

1901

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XX-garren urtea)

UME ZURTZAREN NEGARRAK

Larogei pezetako sariya eta bitezarra Azpeitiyan irabazitako moldaera

Alper alperrik dira neretzat
munduko gauza guztiak:
ez dute nere biotzerako
dituzten poz ugariak,
zeñen atzetik bultzaka, naspill
eta korajez betiak,
dijoaz asko, ezautu gabe
munduko gauza chikiak.
Nere biotzak ichirik dauzka
lurreko pozai atiak;
eta daudela beti orrela,
igaro bitez urtiak,
nere biotzak poz gezurtiai
dauzka belarri ichiak,
eta ez det nai nere penari
pillotu negar berriak;
ez det nai pozik, izate arren
ostera nere begiak,
barren barrengo malko samiñak
irtetzen diran bidiak.

Ez du biurtzen ama bateren
maitasun ona munduak;
ez du kemenik berak sortzeko
ania maitien kantuak,
zeñak entzunik artzen ninduan
ai! zeñen gozoro luak;
zabaltzen daki, munduak iñoiz
amak bezela besuak,
berarengandik laztan eder bat
arturik ume gañuak!
daki arpegi eder gorrian
jartzen amaren musuak...
aztutze ez diran musu galantak,
barrendik irtendakuak!

.

Gozamen abek biurtutzeko,
legortutzeko malkuak,
isildutzeko ume zurtzaren
larri datozen ojuak,
entzun nai nuzke nere amaren

itz sakon, samur, goñuak,
 baiñan munduan eztira entzuten
 Zeruan diran soñuak.

Etza niunduan, alperrik nabill,
 ume zurtzarentzat pozik,
 bere biotza pake osuan
 betiko utziko dunik;
 ezta lurrean nai detan poza,
 ez dauka lurrak sorturik
 biotza bete ta asetzen duen
 atsegintasun sakonik.
 Eskeintzen daki mundu choruak
 poza, pakea aurretik,
 negar biurtzen dan pake otza
 urre apaiñez jantzirik,
 nola arbolak eskeintzen duen
 bere ugaritasuntik
 sagar ederrak, gorriak, baiñan
 ustelak asko barrendik.

.

Ai! ama iltzan; nere amacho
 emen utzita bakarrik
 seme maitea, bere izarra
 negar ta malkoz beterik!....
 ¡nere arnacho, nere poz dena
 joantzan itzuli lurretik!
 eta amacho gabe lurrean
 zer egingo det oraiñ nik?
 ¡arren, amacho, zurea naizta
 ¡lagun zaidazu zerutik!

Goizeko izarra irtendakuan,
 esnatutzean goizean,
 eguzkiaren erreñu puşkak
 nere gelara sartzean,
 alako poz bat banatu arren
 nere barren barrenean,
 ezta osua nere poz ura:

banatzen ezta denean,
 eta biyotzak gelditzen daki
 ostera lanbro artean,
 zergaitik nere goizeko izarra
 ezta, ez bizi lurrean:
 joantzan ni dena illun lajata;
 joantzan zerura aidean,
 anima garbi, zintzo zintzoak,
 itzultzen diran anzean
 ta oraiñ bizi da merezi zuen
 betiko zori onean.
 Choriak ere sayatzen dira
 egunarekin batean,
 biotza alaitzen, berak bakarrik
 dakiten kanta luzean;
 alaitzen nitzan iñoiz ni ere
 amarekin nitzanean,
 baiñan gaur... ¡chori chiki maiteak
 zuen kantuak aitzean,
 penak guziak pillotzen dira
 erruz nere biotzean!
 Ama iltzan ta etzazutela
 kantatu gure echean;
 badira beste asko nor poztu
 sayatu zuen lanean,
 alaiturikan beren amakin
 bizi diranak pakean.

Ain da lodia gure arteko
 naitasunaren katea,
 il zinan baiña ez naiz aztuko
 zutzaz amacho maitea.
 Gabaz geroztik nabillenean
 bakar eta arlotea,
 baiña biotza urrezko amaren
 naitasunean betea....
 ikusten det nik goyan izarrak
 duten jarleku luzea,

nere amacho pozik zerura
joandan atsegin bidea,
eta... negarrak inenderatzen du
korputz indarrrik gabea,
esnatutzeko tristeagoa
goizean biotz nerea.
Ez du alperrik Jainkoak egin
ama naiduen semea;
biotz nerean berak jarri du
beti usaidun lorea,
nere amaren naitasun dena,
argatik naiz ni berea,

nola amacho, zeñari eman
dion zeruak echea.
Goitikan dator unie zurtzaren
atsegin poz emallea....
«Zeruan daude Ama Birjiña
gañera ama zurea»
goitikan dator itz goño ause,
nere tristuren epea,
ume zurtzaren poz ugaria,
malko legortutzallea,
ama nereak bialtzen diran
biotzerako pakea.

RAMÓN INZAGARAY.

1901

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XX-garren urtea)

AMA EUSKERAK ELIZTAR BATZUEI OJU BAT



Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra Azpeitiyan irabazitako lenbiziko aldeera

Leñargi jayo, leñargi bizi
Zeraten izar nerek,
Biziro maite dituzutela
Jaungoikoaren legeak,
Artaldearen artzai zaudeten
Doai aundiyan jabeak,
Kristau guzizko trebeak,
Illun-en argitzalleak,
¡Oju triste bat bear dizute
Gaur egin Ama tristeak,
Paradisotik etorritako
Ama oñazez beteak!

¿Nola ez dizute oju egingo
Ama zar doakabeak,
Baldin ta baldin desanparatu
Banaute nere semeak?
Beragatikan entzun nazute
Nere semecho maiteak,
Ta batez ere gazteak,
Onraren adiskideak,
Zuek zeraten ezkerotandik
Egiyan sendotzalleak,
Zuek zerate Ama sendatu
Bear dezuten loreak.